

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Maiatzak 24, 108. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



ALEX ZUBIA,
Himalayara abuztuan



F "Ondo aterako da"
otonobela

Mendizaleak aurrera

Besaide Mendizale Elkartea



TALDE-LANEAN , INDARTSU

Eman Botoa EAJ ri





ARRASATEko UDALA

JANTZIGINTZA ETA DISEINUA

- **Edukia:** Makinaren erabilpena, patroï lanketa, jantzigintza eta diseinua.
- **Destinatariak:** Makina eta Patroi lanetan gutxienezko ezagupenak dituzten 18 urtetik gorako enplegatugabeak.
- **Zentrua:** M.C.M.ren pabiloi industrialia. Nafarroa Etorbidea.
- **Plazak:** 15.
- **Izen ematea eta matrikula:** 1991ko maiatzaren 28 arte.
- **Hasiera:** ekainaren 3an.
- **Bukaera:** abenduaren 20an.
- **Ordutegia:** 15etatik 19.30 etara. (Astelehenetik ostegunera)
- **IKastaroaren iraupena:** 423 ordu

Informazioa eta matrikula:
Arrasateko Udala (enplegu-dinamizatzailea).
Tfnoa: 79 09 00 edota Deba Garaiko Mankomunitatean.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Jose Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zarala, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karnele Zuazubiskar, Pabli Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Franko kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Hirigintza kultura da

Harritu egin nintzen, oso, lehengoan Oriol Bohigas arkitekto ospetsuari "hirigintzaren ordua amaiturik, kulturarena hasten da" baieztapena irakurri nionean. Nire harridurak bi erro zituela azpimarratu behar dut, hain zuzen ere esaera biribil horrekin ados ez egoteaz aparte, hura zeinengandik zetorkidan ere bait nuen bitxigarri. Bohigas jauna, sozialista den arren, gizon zentzuduntzat neukan. Berak jakingo du zergatik egin duen zoritxarreko adierazpen hori. Hauteskunde garaiko aitorenak, gehienak, zakar ontzira jaurtiki beharko lirakeke.

XX.aren hondarretan, hirigintza kultura ez dela esatea bizitzari ostikada ematea bezalako astakeria galantatzat har genezake. Hirigintza, noski, kultura da; zuzen, oker, trakets, sasi edo zoragarri, baina azken finean kultura. Eta gure hiriak populazioaren makrobilgune bilakatzen ari diren une kritiko hauetan, hirigintza,-urbanismoak- beharkizun minimoei erantzun egokia eman behar die, gure hiriek gizakoi izanez jarrai dezaten.

Gurearen gisako hiri industrializatuak izugarriko arazo piloak darakuste, bertan gero eta kontraesan nabariagoak aurki daitezkeelarik. Zergatik? Hiriak, guk gizakiok proiektatzen ditugun ezintasun eta ahalbiderik ezak gainezkatzen dituztelako.

Gehienetan, gure zoritxarrerako, hirietako ongizatearen plangintza ez dago hiritarren borondatez erlazionaturik, faktore arrotzek zeharo baldintza dezaketelarik. Bestalde, gu gizonok ere hain desberdinak izanik, ezin dezakegu bakar eta behin betikotzat eman une konkretu batean egindakoa.

Hirigintza ez da, ongi homituriko bulego batean zenbait teknikarik garatzen duten lan berezia. Hori, gehienez jota, katearen azken maila litzateke. Aldiz, edozein hiritarren eguneroko emaitzaz hezurramitu behar da hirigintzaren oinarria. Artistak, ikerlari eta intelektualak, esku-langile eta bestelakoak dira euren kokaleku finkoaren diseinua gauzatu behar dutenak. Iruzur eta zintzotasunaren arteko kontraesan luzean eraikitako hirigintza, izan ere gure bizimodua zuhurkeria eta eskuzabaltasunez blai itxuratu bait dugu.

Eta guzti hori, hots, eguneroko bizitzaren estiloa mugatzeko gatazka, ez baldin bada kultura: Oriol Bohigas jauna, oker nengoen. Baina beldur nago, zerbait tekniko dirdiratsu bezain autonahikodun harroskok ez ote diguten gure kulturaren koordinadak ere antolatu gura izango. Horrela balitz, sala ditzagun.

Jose Mari Velez de Mendizabal

egizabal

Bidekurutzeta 13,
BERGARA

Elisabete



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko ateak

Lagarreko pabiloi industrialak
(behea) Tfno: 79 01 92

ZANGITU C. B.

PINTURAK ETA PAPERAK
PINTATUAK

Helbide berria: OLARTE 29,

Alfonbra-likidazioa
Otalora 1ean

olioak, lientzoak,
Artea
akuarelak eta eskulanak

Ferrerias 11, Tfnoa: 77 10 95

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46

Hausnarketa

Egizaneko emakumeok zutik gaudela jakinik, gure poza zuekin elkarbanatu nahi genuke. Hausnarketa prozesu luze baten ondorioz, Egizanek lehen asanblada nazionalan gure gaurko egoera soziala aztertu du, oso hunkiturik.

Emakumeon bizi baldintzatan zenbait aurrerapen formal eman direla onartzen dugu, feministen aldarrikapen batzuk onartu dira, baina planteamendu teorikoen aplikazioa falta da.

Ekonomikoki beste batzuren mende bizitzea, diskriminazio soziala, guzti hau aldatzeko beste herri-erakundeekin batera gure parte hartzea beharrezkoa da.

Emakumeok gogor lan eginez, benetako berdintasun egoera eskatzera behartuta gaude. Bizitza pribatutik gizartera irten beharrean gaude.

Gure bizimodua hobetzeko, denon artean gure arazo sakonenak salatu behar ditugu.

Benetako askatasunera eramango gaituzten aldaketa estrukturalak zeintzuk diren jakin behar dugu. Gure ahotsa entzuteko garaia heldu delako, ezin dugu denbora luzeagoz isilean segitu.

1980. urtean ONUk egindako inkesta baten ondorioetan honako hauek irakur daitezke:

Emakumeek helduen populazioaren %50a osaten dute eta lanordu guztien 2/3k guk emakumeok egiten ditugu. Munduko diruaren 1/10en bat jasotzen dugu eta %1 baino gutxiago daukagu gure esku munduko propietatei hitz egiterakoan.

Gaur hamaika urte beranduago zifrek seguraski goruntza egin dute.

Krisia dela eta, emakumeak izan gara langabeziko zerrendak osatu ditugunak, azpiko lanetan, ebentualitatean eta miserian gehien baten ibili garenak.

Egizanetik animatzen zaituztegu ilusioz egoera hau aldatzera, pausoz pauso, denon artean lortuko dugu eta.

Arrasateko Egizan


Jarrera irrazionalak Abaroan

Adiskidea, agur:

Eskutitz honen bitartez, Abaroan Diputatu Nagusia eta berarekin zihoazen pertsonetikiko Elena Egizabalek eduki zuen jarrera irrazionala eta modu txarrekoa salatu nahi nuke.

Udaleko Sanitate Batzorde buru moduan, halako jarrerak edozein pertsonarekiko bere ideologia edozein izanda, ez ditudala admitituko adierazi nahi dut, eta gutxiago Jubilatueganantz ematen bada.

Bixente Etxeberria.



Arixo!

Bi baja izan ditugu aste honetan. Arrasate Pressen bata eta ATBn bestea. Arrasate Pressen bederatzi hilabetez lan egin ondoren, **Arantzazu Loidi** Donostiara joan zaigu. Diputazioan egingo du lan, itzultzaile. **Eneko Lazkano**, ETEOko bekaduna, ATBko irudi-artxiboa lantzen ibili da sei hilabetez, beka bukatu zaion arte. Biei eskerrik beroenak eta zorterik handiena.




Arantzazu Loidi




Eneko Lazkano

Zer eskatuko zenioke hurrengo alkateari?




Simon Arregi
(Jubilatua)

Denon alkatea izatea eskatuko nioke. Lehendik utzita dauden hainbat gauza aurrera ateratzea, pobreentzako etxeak esate baterako, edo jubilatuentzako pasealekuak. Eta Roneo pareko pasabide txar hori ea noiz konpontzen duten.



Felix Arriaran
(Eguzkiko partaidea)

Herriko ekimenak bultzatuz. Aramaio erreka garbiketaren plana bideratzea, zaborrei irtenbide egokia ematea eta azpiegitura lanak egin behar direnean (sahiesbide, kamino, etab) herritarren eritzia kontuan izatea.



Ignazio Lakuntza
(Eskolako Zuzendaria)

Elkar laguntza bultzatzea eskatzen diot. Arrasate da teknologia mailan punteroetarikoa eta hori bultzatu egin behar da, goi-mailako ikasketak arrasatera ekarriz. Udalak bestalde, planak epe erdi eta luzera begira egin beharko litzuke.




Fernando Zufiria
(Atletismo entrenatzailea)

Atletismo-pistak lehenbailehen egin ditzatela. Ezin dugu segitu orain gabiltzan moduan, entrenatzeko lekurik ez daukagulako bai atletak eta baita epaileak ere, Gasteizera eta Ordiziara joaten.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA



H A U R T X O A

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE

Memesa

79 42 22

LURRINGEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate



Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatoroa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazkiak	45 87 44
----------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKÓ ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------



24

OSTIRALA

• • •

- Zinea: Amaia. "Cuentos inmorales", 10.30etan.
- Alai. "Matrimonio de conveniencia", 7 eta 9.30etan.
- Mendi-astea, diapositiba emanaldia, "Ifurtegitarrak Pumori mendian", Monterronen, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

25

LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "Matrimonio de conveniencia", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Haurrentzako kontzertua, Azpeitia eta San Vitorreko haurren abesbatzekin, Arrasateko parrokian arratsaldeko 6etan.
- Umeentzako bideo emanaldia, "Goonietarrak" Monterronen, arratsaldeko 4etan.

Kirol Agenda

TXIRRINDULARITZA

• • •

Igandean, Arrasate-Oñati-Legazpia-Azkoitia-Azkarate mendatea-Eibar-Elgeta-Arrasate ibilbidea egingo dute Arrasate Txirrindulari elkarteak. Irteera goizeko 9.15etan izango da, trenbide zaharraren geltokitik.

- Almeneko 25. urteurrenaren azken ospakizunak: Goizean, ikasleen lanen erakusketa, kiroleko finalak eta antzerki emanaldiak. Eguerdi aldera, Almeneko abestaldean agerpena eta Eskoriatzako bandaren kontzertua; ondoren bazkaria eta erromeria.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

26

IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "Matrimonio de conveniencia", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

27

ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "Matrimonio de conveniencia", 7 eta 9.30etan.

- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

28

ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "Matrimonio de conveniencia", 7 eta 9.30etan.
- Kontzertua: Municheko Madrigalista Abesbatza San Juan Bataiatzailearen parrokian, arratsaldeko 8etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

29

ASTEAZKENA

• • •

- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

30

OSTEGUNA

• • •

- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

BOXEOA

• • •

Santi Galan eta Guillaume Dibateza boxeolarien arteko borrokaldea, larunbatean Musakolako kiroldegian gaueko 11 etatik aurrera.

MENDIA

• • •

Besaide Mendizale Elkarteak antolatutako, igandean Arrasate-Olandixo-Kruzeta-Jarindo-Venta-Fria-Bolibar-Mendiola-Urkulu-Bedoña-Arrasate ibilbidea.

Erakusketa

• Tailagileak

Aste guztian zehar, Monterronen Arrasateko Tailaginen Elkarteko partaideen lanak ikusteko aukera izango da. Tailaginen elkartekoek, hogei-tamar lan baino gehiago biltzea lortu dute.

Ikastaroak

• Eskalada

Besaide M. E. ak antolaturik, Atxarten 14-18 urte dituzten gazteentzat eskalada ikastaroa antolatu du, ekainaren 1 eta 2an. Izena emateko 27-28-29an Besaidetik pasatzea besterik ez dago. Ikastaroa egitearren 200 pta. ordaindu beharko dira.

• Landare eta loreak

Arrasateko Famili eta Gizarte zentruak, landare eta loreei buruzko ikastaroa antolatu du. Ikastaroak datorren ekainaren 5a arte emango dira. Ikastaroaren helburuak, barrurako eta kanporako landareak ezagutu



IKASTAROAK

Lanbide Heziketarako hiru ikastaro

Arrasateko Udalak, Jaurfariutzaren laguntzarekin, Lanbide Heziketako hiru ikastaro antolatu ditu, ekainaren 3an hasi eta abenduaren 20an bukatuko direnak hain zuzen.

"Instalakuntza eta muntaia elektromekanikoak" izeneko ikastaroan 620 eskolordu emango dira, eskolak egunero eta goizetan izango direlarik. "Klimatizazio sistemak" ikastaroa 500 ordukoa da eta, uztailean ezik, klaseak arratsaldean emango dira. Azkenik, "Jantzigintza eta diseinua" ikastaroan 423 ordu emango dira, kasu honetan eskolak ere arratsaldean izango direlarik. Aipatutako ikastaroetan parte hartu ahal izateko bete behar diren baldintzak, hamazortzi urte baino gehiago izatea eta langabezia egotea dira.

Ikastaroetan izena eman nahi duten guztiok, hilaren 28a baino lehen egin beharko dute. Udaletxeko enplegu dinamizatzailearen bulegoan edo Mankomunitatean.

• Ikerlan

Ikerlanek antolaturik, ekainean teknologia hedatzeko egitasmoei buruzko ikastaroa burutuko da. Ekainaren 5ean "Prozesuen erregulazioa" izeneko gaia garatuko da, 6an "Prozesuen sentsorizazioa" izeneko, "Dokumentazioa eta integrazioa" ekainaren 12an, eta azkenik, hilaren 19an "Tailer-rako programaketa eta simulazioa" izeneko gaiaren garapenerekin amaitutzat emango da ikastaroa.

Ikastaroetan matrikulatu, edo informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, 79 48 11 telefono zenbakira deitu dezake.

Ospakizunak

• Almenek 25 urte

Larunbatean, Almeneko 25. urteurrenaren ospakizunekin amaitzeko jai handia antolatu dute. Goizean goiz, liburutegian ikasleen lanen erakusketa irekiko da. 10etatik 12ak bitartean txikien kiroletako finalak jokatuko dira. Ordu berean 5. eta 8. mailako ikasleek antzerki emanaldiak eskainiko dituzte

Eguerdian, 12etan, Almeneko abestaldean agerpena izango da eta ordu bat beranduago Eskoriatzako bandaren kontzertua entzun ahal izango

da. Kontzertua bukatzen denean lagunarteko bazkaria, eta ondoren erromeria.

Aurrematrikulak

• Leniz Lanbide Ikastegia, 79 79 00.

• San Viator Ikastola, 79 04 11.

• Batxilergo Institutua, 79 44 47.

Liburuak

• "La experiencia cooperativa de Mondragon"

Jose Mari Ormaetxea, Arrasateko kooperatibetako sortzaileetarikoa liburu mardula atera du. 211 orrialdetan zehar errepasoa ematen die kooperatibei.

Zazpi kapitulutan hasierako esperientzia kontatzen du eta arlo desberdinak jorratu: Hezibide Taldea eta Eskola Politeknikoa, Lan Kide Aurrezkiea, Lagun Aro, Talde Industrialak, Arrasate Kooperatiba taldearen oinarriko printzipioak eta taldearen etorkizuna.

Hauteskundeak

• Azken ekintzak

EAJ: 24ean, afaria batzokian.

HB: 24ean, Xabier Zubizarretaren hizketaldia Seberon arratsaldeko 7etan. Ondoren, txikiteoa trikitilari eta hankaluzeeekin. 8etan Makailo tortila eta sagardo dastaketa. 10.30etan rock jaialdia plazan, *Baldin Bada* eta *Platero y tu* taldeekin.

LKI-EMK: 24ean, *Hertzainak*, *Malaria* eta *Los Pichones* taldeekin Musakolako kiroldede



eta lore lehorrak egiten ikastea lirateke. Ikastaroan izena eman nahi dutenek, 79 04 59 telefono zenbakira deitzea besterik ez daukate.

HB salbatu bada, alkatetzan dagoen alderdiaren zuzendaritza gaitasunagatik baino gehiago, EAK eta EAJk erantzukizunak hartu dituztelako izan da. Talde bloke ez gara konformatu HBk egin izango zukeen 'laisser faire' politikarekin, bi urteren buruan desastre hutsera eramango gintuen politikarekin".

(Pedro Mari Ruiz de Azua, EAKo zinegotziak El Correo egunkarian)

Aurrekontuen elaborazioaren bidez hari eramalea bilatu behar izan da. Hortik aurrera, aurrekontuak onartu ondoren, hari hori ahaztu egiten da. Alderdi bakoitza bere batzordeetara itzultzen zen, 'taifasen erregetza' txikiak bailliran. Halakoxe gogorra da. Batzuetan kooordinaziorik ere gabe, arazo edo proiektu beraren barruan sartuta dauden batzordeak ere ez".

(Xabier Lasaga, EAJko zinegotziak El Correo egunkarian)

Lau urtetan zehar Alkateak ez dit deitu ere egin, ni Auzoetako batzordeburu izanik gaiak, arazoak edo proiektuak aztertzeko. Boikoteatzen ere saiatu izan da gainera, eta baita beste batzorde batzuetatik 'punteatzen' ere".

(Paco García PSOEko zinegotziak El Correo egunkarian)


Bukatzear dagoen legegintzaldiaren ezaugarri nagusia Arrasateko arazo ezberdinak konpontzeko orduan etengabeko heterogeneotasuna izan da. Azken lau urteotako erabaki bakoitza alderdi ezberdin eta kontrajarrien arteko inprobisazioaren puruz lortu da. Lotunea falta izan da".

(Aitor Orobengoa EEko zinegotziak El Correo egunkarian)

Lehen urtean lau urtetarako plana egin genuen, besterik gertatu egin duena, nire ustez. Arrasaten behintzat lehen aldian zen. (...) Gero, urtero aurrekontua prestatu eta onartzean lau urtetarako eginiko plana zehazten jarduten genuen".

(Xabier Zubizarreta HBko zinegotziak Correo egunkarian)

Zer da Astore eta zer harreman dauka Arrasateko kirolarekin?



Astore kirol jantzieta-rako sortu dugun marka komertziala da. Hitza bera italiarra da. Euskaraz *astorek* esan nahi du, *itsas-arranoa*, alegia.

Hasieran merkatu azterketa egin genuenean, sail horretan lehia izugarria zegoela ikusi genuen, eta marka ugari. Argi genuen merkatu gaitz horretan ondo sartzeko teknologian eta diseinuan jokatu behar genuela gogor. Horregatik, Italiara jo genuen kolekzio osoaren diseinua egitera. Hortan, marka eta patentea geureak izan arren, hasierako diseinua italiarra da.

Kataide industrialdean egin dugun lantegian, bestalde, goi teknologia sartzen hasi gara. Gerora, diseinua hementxe indartu nahi dugu. Oraingoz, baina, kanpoko laguntza beharko dugu. Pentsa dezakezue, guzti hori egiteko inbertsio handitan sartu gara. Estatu mailan seguruena ez da horrelako instalaziorik egongo beste inon.

Urtean bi arropa-kolekzio ateratzen ditugu: neguan bata eta udan bestea. Hauek modari lotuagoak daude besteak baino. Kirol ezpezialitateei dagokienez, laster katalogo bat aterako dugu.

Galderaren bigarren zatia erantzuteko orduan, kontuan hartu behar da gure lan gehiena kirol munduan egiten dugula. Horregatik, bailarako kirolariei babesa ematen saiatzen gara, arropa eta oinetakoak emanez. Guk atarramendua ateratzen diegu geure inbertsioei eta kirolariak irabazten ateratzen dira.

*Esteban Uribe Salgo
Arrasate Inport-eko arduraduna.*

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



PEÑACOB
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
79 14 01

ARRASATE

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.

Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

◆ Hauteskunde kanpainen sorpresak edo berrikuntzak kontuan hartzeakoak izaten dira beti. Kanpaina honetan bi aipatzekoan, hauek:

- EMK-LKIk etxe-okupazioak erabili ditu etxebizitzarekin Mondragoen dagoen arazoa azpimarratzeko.

- Aretxabaletako EAK, bestalde, hamabi minutuko bideoa atera du, Mendietak zuzendu duen Udalaren gestioaren berri emateko. Herriko bideodendetan jarri dute salgai «*Lau urte etorkizuna lantzen*» izenarekin.


◆ EAJren mitinean Monterronen, aurpegi ezagun bat ikusi zen antolatzaileen artean: **Urko** abeslariarena. Berak esan bezala, ez zuen zerikusirik partidarekin. Soinu-teknikari lanetan ari zen.

Datorren astelehen goizean **Arrasate Pressek** ale berezia aterako du. Bezperako emaitzak, gorabeherak, nortzuk diren aukeratutako zinegotzi berriak, auzoz-azoko datuak, txutxumutxuak... Dendena, egunkari formatoan.

Astelehenean bada, zure egunkariarekin batera. Arrasate Press berezia jasoko duzu doan. Eskaiozu kioskeruari.

hona hemen...

Xabier Zubizarreta (HB)





LEIRE ZUBIKARAI 91

Atxabaltarra, 46 urte, ezkondua eta bi semeen aita da Xabier. Informatikan lan egin izan du alkatezara dedikazio osoz sartu aurretik, eta Magisteritza egina dauka. Kirola eta batez ere mendia ditu atsegin, eta naturarekin harremanetan egotea, horregatik esaten du, beharbada, baserritar frustratua dela, eta baserrian lan egitea gustatuko litzaiokeela. Bertsoaritza eta pilota ditu zaletasun frustratu. Harropuskeria eta falsukeria gorroto ditu besteeengan, *"personak naturala izan behar du"* eta bere burua kontrolatzen dextente dakiela dio. Gizartean mugak desegin eta elkari kompetentzia egin beharra kendu... gauza asko aldatuko luke. Beti idealista izana, gero eta errealistago dela dio, umore ona du eta gubxi irauten diote prontoek. Liburua? *"aspaldian txosten mordoia, baina libururik ezin dut irakurri"* eta *"El bueno, el feo y el malo"* filmea ikusiko luke ostera.

Bere buruarengan izan duen konfidantza ez galtzea eta dinamismoari eustea eskatzen dio Arrasateko herriari. Arrasate hitz bitan? *"Ahaztezina eta zaratatsua"*.

**BAINUJANTZITAN
ESPEZIALISTAK**

NEREA



**BANATZAILE
BAKARRA:**

gottex

RASUREL


Majestic

Belcor

TROPIC

Erdiko kale 28, Tfnoa: 79 13 43 ARRASATE

Partidu desberdinen mitinak



EAJk Monterronen burututako mitinean, Joseba Egibar, Eli Galdos eta Jose Mari Loitik hitz egin zuten. Jeltzaleen deialdiari kasu eginez, Monterroneko hitzaldi aretora jende ugari hurbildu zen.



HB Iñigo Iruin, Jose Luis Elkoro eta Xabier Zubizarretak hartu zuten parte, HBk herriko plazan egindako mitinean. Hiru hizlariez gain, Aitor Sarasua bertsotan ari izan zen, eta presoen senideek bozketa sinbolikoa egin zuten.



EEk egindako kanpainan, Bandresek Udalako Ingurugiro Eskola bisitatu zuen, Martin Auzmendi Eskola Politeknikoa, eta gainera Xabier Gurrutxagak larunbatean Monterronen mitina eskaini zuen.



EA Imanol Murua ere, egun hauetan Arrasaten ibili da, esaterako Abaroako jubilatuei bisita eginen. Bestalde aipagarria da Pedro Mendietak ere hitzaldia egin zuela eta Esther Larrafiagari omenaldi-afaria eskaini zitzaiola Alkartetxean.



LKI-EMK koalizioek, pasa den ostiralean prentsaurrekoa eskaini zuten El Ferial ikastetxe gaineko etxebizitza batean, egun batzuk lehenago okupatu zuten toki berean alegia.


BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana 12, ARETXABAETA

**Osorik
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate



Urtarrietik hona etxeetan brintzak gehitu egin dira

Salaketa gogorak Udalari

Azatza etxeetako auzotarrek idatzitako eskutitzean

Uherkapeko obrak direla eta, Azatza etxeetako auzotarrek, Udalari eta Irgala etxegileari oso kritika gogorak egiten dizkien agiria atera dute.

Azatzakoek agirian diotenez, obrak modu basatian egin dira, gutxieneko ardura teknikoa gorde barik. Azatzakoek ustez obrek helburu bakarra izan dute: Azatzan bizi direnen segurtasuna eta hondamendi ekonomikoaren gainetik egin egitea. Udalak hormaren proiektua kontuan hartu barik, eskabazioa egiteko baimena eman zuela, dio kaleratutako agiriak. Agirian bertan, Udalari brintzak agertu zirenean etxeak gaizki eginda zeudelako zurrumurruak zabaltzea, juezaren aurrean etxean dauden brintzak obrak hasi aurretik agertu izanaren posibilidadea adieraztea, eta konplize izatea, hau da eritzi-independentzia barik ari izana leporatzen zaio.

Azatza auzokoek diotenez, tinkatze lan handiak egin omen dira goi ete be-

heko parteetan, lur mugimendurik handienak aurtengo urtarrietik aurrera eman direlarik, behe partea tinkatzeko obrak egiten ari ziren bitartean. Badirudi brintzatzearen ondorioz, etxeen estrukturak mugitzen hasi direla, auzotarrak gehien kezkatzen dituen, hain zuzen. Kezka hori areagotu egin da Azatzaren goikaldetik Altamirara doan bidea ere, mugitzen eta brintzatzaren hasia delako.

Arazoaren aurrean, juezak bi erabaki hartu ditu: Azatza etxeen lurretan sartzea debekatu eta obrak geldiarazi. Horrekin batera, Azatzakoek Udala eta Irgalari kerella kriminala jarri diete.

Agiria dela eta, Xabier Zubizarreta alkateak, gutun hau hauteskunde-kanpainaren amaieran agertzea oso esanguratsua dela adierazi du. Gainera, agirian oinarriker gabeko salaketa grabeari omen daude, eta nahiko material omen dago epaitegietara eramatea aztertzen hasteko.

Usteak uste

Gaur amaitzen da hauteskunde kanpaina. Bihar atsedena eta etzi bozketa eguna. Ofizialki bi astebetekoa zen kanpaina, baina aurrekanpaina kanpaina bera baino luzeagoa izan denez, bete samar gaude denok.

Hautagaiek inoiz baino gehiago jokatu behar izan dute, telebistaren aurrean batipat alkatearenak eginez. Batzuk kapitain ausartak ematen zuten Nerbioi ibai gaineko arrainuntzien leman, ausartki etorkizun urdinari begira. Telebistak posibilidadate hori ematen du eta ikasi egin beharko dugu horrekin bizi-tzen.

Arrasaten ez da horrelako showrik ikusi. Lehen aldiz, hautagaiek bi tresna berri izan dituzte, Arrasate Press eta ATB, euren mezuak edo imajinak plazaratzeko. Akaso horregatik ez dute kalea hainbeste landu. Hori da hemen faltan sentitzen dena, hautagaia eta herritarren arteko harreman zuzena, beroa. Ez telebistan agertzeko soilik egiten den hori, kamararik barik gauzatzen dena baino. Baliteke lotsati samarrak izatea hori egiteko edo entzun beharko genituenak entzuteko prest ez egotea, nork jakin.

JOXE ARANZABAL

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,


Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Ileapaindegi mistoa

Erguin 15, etxebehea.
Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



Udal hauteskundeak izan balira...

Hauteskunde guztien emaitzak zinegotzitan kontatuz gero

Grafikoa ez da erreala, bere osoan, Udaletxeetarako izan ez diren hauteskundeak ere, zinegotziak aukeratzeko izan balira bezala jarri ditugulako.

Hala ere, balio du Arrasateko partiduen bilakaera ikusiz, joerak aztertze-ko. Badira partidu batzuk desagertu direlako jarri ez ditugunak: ESB, AP, DCV eta UCD. 1979an adibidez CDSEK HBk adina botu lortu zituen. APk (PPren aita) zinegotzi bat irabazteko beste botu lortu ditu behin baino gehiagotan. EMKK ere behin lortu zuen aulki bat.

EAJren bilakaerak markatzen du Udalaren urte demokratikoen historia. Ardantzaren garaian erabateko gehien- goa lortu zuen. Albaro Arregiren ga- raian nagusi izan zen, baina zatiketan bukatuko zen krisia nabaritzen da gai- nerako hauteskundeetan. EAren sorre- rak indar erlazioaren aldaketa ekarri zuen. Harez geroztik, HBk eta PSOEK gorantzako joera erakutsi dute, EAJk bezala. EAk eta EEk, berriz, beheran- tzakoa. Joera horiek egiaztatu ala eten egingo diren, igande gauean ikusiko da.

Mankomunitateak balorazio baikorra

Deba Garaiko Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak, lau urteko lanaren balantze baikorra egin zuen. Zuzendaritza Batzordearen ustez, Mankomunitatea eta udaletxeen arteko harremanak onak izan dira, zerbitzuak asko areagotu direlarik. Zerbitzu orokorrez gain, Mankomunitateak hiri- gintza, ingurugiro, hiltegi, berreraiki- tze, mendi-nekazaritza eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen die bailadako uda- lei.

Etxebizitzetarako buruzko ikerketa

Udalak egindako ikerketa baten ara- bera, Arrasaten alokatuta dauden etxe- bizitzak 598 dira, utzirik daudenak ber- riz, 432 dira. Arrasaten dauden etxebi- zitzak 7.884 dira, beraz alokatutakoak %7,58a dira.

JAIOTZAK

Garcia Quelle, *Markel*. Maiatzaren 9an.
Santos Andres, *Asier*. 9an.
Bengoia Iribecampos, *Aimar*. 12an.
Iruin Ezkurra, *Aitor*. 14ean.
Asuncion Benito, *Ainara*. 15ean.
Sierra Irazabalbeitia, *Beñat*. 16an.
Heriz Etxebarria, *Jokin*. 17an.

EZKONTZAK

Victor Jose Cerro & Rosa M. Urzelai, maia- tzaren 18an. Zibilez.
Zenon Buendia & Lucia Escolar, 18an. Zibilez.
Odilo Vazquez & Monserrat Aranzazu Puer- to, 18an. Elizaz.
Serafin Sanchez & Timotea Cabezas, 11an.
• Elizaz.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak


ARETXABALETA Tfnoa: 79 91 84

URONDO
elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE




Kontzezifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE



SAMEGO
GARBIKETAK

Urriburu 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE



Langileek batzarrak egin zituzten

Egun t'erdiko greba udaletxean

%7,7ko soldata igoera eta bi lanordu gutxiago atera

Euskadiko Udal Elkarteak, EUDELeK, sindikatuekin harremanak apurtu zituenetik, ARCEPAFE edo konbenioaren negoziaketa zalantzan zegoen. EUDELeK hauteskunde osterrako utzi nahi zitueneko negoziaketak, printzipioz, %6,5a igotzea erabaki zuen eta geroagoko igoerak eta orduak zehazteko utzi. Baina astelehenean udal administrazioak grebara jo zuen EUDEL eta sindikatuen arteko negoziaketan presia egiteko asmoz.

Gasteizkoa ez zen posible izan eta garbi geratu zen konbenioaren sinaketa

udal bakoitzaren esku zegoela. Arrasaten astelehenean ez zen negoziatu, baina astearte eguerdian, baturik talde politikoetako buruak alde batetik eta udaleko langileen ordezkariak bestetik, gutxienezko adostasun batera heldu ziren.

Soldataren igoera %7,7an uztea, urteko ordu kopuruari 2 ordu kentzea eta berriz ere, EUDEL eta sindikatuen artean ARCEPAFEren negoziaketak hasten badira, han erabakitako hobekuntza eta akordioak Arrasateko Udaletxeko langileentzat onar daitezenezko akordiora iritsi ziren.

□ Jose Letona beka

Arrasateko Parrokiako Artxibategia antolatzeke, lau proposamenek lortu dute Jose Letona beka eskuratzeko aukera izatea. Javier Balanzategi, Amaia Zulueta, Isabel Barrutia, Ana Ester Gomez, eta Mikel Larrañagaren proiektuak izan dira onartuak. Hemen-dik bi astera jakingo da Jose Letona beka eskuratzen duenaren izena, hau da, bekaren 750.000 pezetak eramango dituenarena.

□ Larreako Etxebizitzak

Larrea Kooperatibako etxebizitzak adjudikatzeke laster egingo den jendaurreko zozketan, 498 eskatzailek parte hartu ahal izango dute, beste 147 eskariri, lehendik etxebizitza bazutenei, ezezkoa eman zaiolarik. Onartutako eskarien zerrendak, erakusgai izango dira datozen 27, 28, eta 29an udaletxeko iragarki taulan.

□ Azokako salmenta postuak

Udalak proposamen berria egin die azoka plazako saltzaileei. Proposamen berriaren arabera, behin salmenta postua lortu eta gero, lau urtez segitu ahal izango da, hileroko kuota 1.160 pezetatik 914 pezetara jaitsi delarik. Orain, ikusi egin behar azokako saltzaileek zein erantzun ematen dioten Udalaren proposamenari, orain artean batzuk eta besteen jarrerak guztiz kontrajarriak izan dira eta.



Parques
y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA

LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR


LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ

Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



• Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero, orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean. Moztu, bada, txartelak eta erantzunak Arrasate Pressera bidali.

• Uztailaren 16an, Zotz-Motzen sari handiak zozkatuko dira: Renault Clio bat eta bi pertsonarentzako bidaia Kanariar Irlatera. Zozketa handi honetan parte hartzeko txartelak Zotz-Motzen babesleek banatuko dituzte euren bezeroen artean, erosketekin batera.




• ANSCO argazki makina bat.


IRABAZLEAK

Argazki makina:
LUIS M. UGARTE
 Telefonoa:
**ESTEBAN
 MODRAGON**
 Erlojua:
I. ARANBURU
 Afaria:
LUMA JOSETXO


Zotz



• HANDY telefono bat.



• CASIO erloju bat.




Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01
 ARRASATE

Erikite

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20
 ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19 25
 ARRASATE

Motz

LEHIAKETA

GALDERA

Zein poetaren oroimenez dago Bedoñan oroitarria?

Izena:

Abizena:

Telefona:

• Bidali erantzuna eta zure datuak Arrasate Pressera: Azoka Kalea 1.



• 2 lagunentzako AFARIA.



• KANARIAR IRLETARA
2 lagunentzako bidaia
astebeterako.



• Renault CLIO auto bat.
(F.F)



KAT IDE

Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10
ARRASATE



**Baskotour
BIDAIAK**

Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22
ARRASATE



**MECA
tailerrak**

Araba Etorb. 2/g, Tfnoa: 79 50 12 / 79 52 12
ARRASATE



Joan zen astean, **Zotz-Motzeko** sarien berri ematea ahaztu zitzaigun. Hori dela eta, aste honetan biren berri eman beharra daukagu. Baskotourren ateratako argazkian **Ruth Osinaga, Aitor Etxebarria** eta **Esteban Mondragon**. Kataiden ateratakoan, berriz, **Markel Uribarren, Aiana Alonso** eta **Pello Zabaletaren** ahizpa agertzen dira.



◀ Injinerutzako ikasle hauek igande iluntzean EPPko egoitzean sartu zirenean, **txakur polit bat ikusi zuten** bueltaka, noraezean. Lehen gaua eurekin pasatu zuen, baina orain jabearen bila jarri dira. Txakurra emea da, marroia, eta sei bat hilabete izango ditu. Jabeak 79 72 45 tfnora dei dezala, arratsaldeko 18.45tik 19.45ak bitartean.

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

Ostiralean **Jose Ramon Beloki** egon zen Mondragoen, AEDko zuzendaritza batzordekoekin bilduta. Belokik Jaurlaritzak euskarazko egunkaria egiteko dituen asmoen berri eman zuen. Txosten ekonomikoaren berri eman zuen nagusiki. Galdera asko luzatu zitzaizkion Belokiri, bere proiektuaz eta baita Euskaldunon Egunkariari buruz ere. ▶



PROPIOAK

● **Rafa Garcia**, 54, mondragoetarra da Espainiako Merkatal Ganbara Ofizialeko lehendakaria Alemanian. Frankfurt bizi da aspalditik. Garai batean Fagorreko ordezkaria izan zen Alemanian. Gaztaroan kontrabaxua jotzen zuen *Los Leniz* musika-taldean.

● **Kepa Landaluze**, 33, artista arrasatearrak laurehun mila pezetako beka irabazi du Iturripeko kiroldagiko eskultura egiteko. Maisutza industrialia egin ostean, Arte Ederretan lizentziatu zen, Bilbon. Arrasateko Institutuan irakatsi eta gero, gaur egun Zarautzeko irakaslea da.

● **Jon Andueza**, 25, kazetari arrasatearrak Bergarako VI. Ipuin Lehiaketa irabazi berri du. Jonek kazetaritza ikasi zuen Leioan. Arrasate Pressen eta ATBn lan egin zuen. Berrigara aldizkariko erredaktorea. Rikardo Arregi kazetaritza saria irabazi zuen iaz.

◀ Jose Letona zenaren familiak laga egin dio Arrasateko Udalari Joseren liburutegia, Monterronen ipintzeko, herritar guztien erabilgai. Katalogatze lana **Jose Antonio Arana Martija** euskaltzainak eta **Jose Mari Velez de Mendizabalek** egin dute. Familiak liburutegiaren jabetza eta lan guztien kopia izango ditu. Lagapenaren sinaketa atzo egin zen Arrasateko notarian. Udalaren partetik **Xabier Zubizarreta** alkateak eta familiaren izenean **Maria Teresa Letonak** sinatu zuten.



GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

**I
R
A
T
I**

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

Mendia dute maite

Besaide Mendi Elkartea 1941ean sortu zen, Juventud Deportivaren barruan. Gaur egun 1.700 bazkide ditu, horietako berrehun edo, mondragoetarrak ez direnak. Helburu bat dute: mendizaletasuna zabaltzea.

Garibai kaleko 3 bisen daukate etxea, Iturbide egoitzaren ondoan. Barrura sartu eta bi gazte bertako gela handian. Andoni Villar eta Bittor Iñarra dira, lehendakaria eta lehendakariordea. Besaide M.E. ko odol berria.

Sortu zenetik dexente aldatu da Besaide Mendi Elkartea, dioskue biok. Hasieran mendira egindako irteerak ziren eginbehar nagusia. Gaur, berriz, sail desberdinetan eraturuta dago: eskalada, eskia, espeleologia, gazte saila, irteerak, aterpetxea, senderismoa eta pertsonal saila.

Guzti honi aurre egiteko Besaide M.E.k milioi terdiko aurrekontua du aurtan. Diru horren %65a bazkideen kuotetatik dator; %15a Arrasateko Udaletik eta %20a karteletan eta, egiten duten publizitatetik. Azken bi atal hauetan atera ditzaketen irabaziak inbertsioetarako erabiltzen dituzte: ordenadorea, aterpean egin beharreko obrak...



Besaideko irteera bateko jolasak. Elur pilora jausi aurreko txutzumutxua

Antolaketa

Bazkideen Biltzar Orokorra urtean behin elkartzen da, abenduan nor-

malean eta han hartzen dira erabaki inportanteak. Zuzendaritza-Batzordea, sail bakoitzeko ordezkariak osatzen dute. Hilero biltzen da.

Batzorde ejekutiboan, bere aldetik, astero biltzen da. Lehendakaria, lehendakariordea eta idazkariak osatzen dute eta egunez eguneko lana egiten dute.

Mendia eta burokrazia

Bi lan mota daukate Besaide M.E. an, burokratiko eta kanpora begira egiten dutena. Bazkide egiten diren guztiek kanpoko ekinztetan parte hartzeko ametsarekin ematen dute izena Besaiden, baina zuzendaritzan ari direnek ordu amagabeak eman behar izaten dituzte lan burokratikoan bakarrik. Horregatik liberatu bat hartzea pentsatu izan dute behin baino gehiagotan. Hala ere, oraingoz ez dute salto hori eman. "Lana sobran daukagu hemen. Mendizaleei hurbil daitezela laguntzera esango genieke. Gure ateak zabalik daude", dio Bittorrek.

Aldaketak

Mendizaleen artean aldaketa gogorrak eman direla diote Andonik eta Bittorrek. "Lehen jende mota bat joaten zen mendira. Orain beste bat, gazteagoa". Akaso horregatik orain hiru urte Besaide M.E. ko zuzendaritzan ere aldaketa handiak eman ziren. Jende gaztez osatutako belaunaldi berria sartu zen. Lana egiteko modu desberdinak zituen jende gaztea. "Ahalik eta jende gehiena sar dadin ahalegintzen gara. Horretarako gauzak errazago jartzen dizkiegu mendizaleei. Lehen oso ibilbide gogorak antolatzen ziren. Orain, berriz, askoz ere errazagoak eraten ditugu, jendea gustora ibiltzeko modukoak".

Mendi-irteerak

Ekintza guztietatik zabalduenak eta ezagutuenak mendi-irteerak izango dira. "Normalean hemendik kanpoko mendietara joan ohi gara, Nafarroa eta Araba ingurura, jendeak beste mendi eta parajeak ezagutu ditzan". Horretarako igandek aprobetxatzen dituzte. "Batzuk nora joan ez dakitela doaz. Beste batzuk, ordea, paraje horiek propio ezagutu nahi dituztelako".

Jaizubiak irteera luzeagoak antolatzeko aprobetxatzen dituzte. Urtean bi edo. Aurten, adibidez, Gredosera joan ziren S. Jose zubian. Iraila inguruan Iratira joateko asmoa dute. Era honetako irteeretara gazteak joaten dira, hara joateko modurik, kotxerik alegia, ez dutenak.

Mendiko asteak

Baina ez dira hor Besaide M.E.aren lanak amaitzen. Zabalkunde lana ere egin nahi dutelako, orain hiru urte Mendi Asteak antolatzeari ekin zioten. Filmeak, diapositiba emanaldiak, hitzaldiak, mahainguruak, etab. eratzen dituzte. Aste honetan egin dena hirugarrena izan da. Udal langileen greba zela eta, Monterronetik EPPra eraman behar izan zuten lehen egunean eta horrek ez zion mesederik egin. "Hiru urte hauetan, egune-



Besaidek 1971an dirua rifak saltzetik aterata txabola hau egin ahal izan zuen Lexegaraten (Alabitta).

ro 40 pertsona inguru hurbildu dira batazbeste. Bada-kigu. jendea Arrasaten oso liatuta dabilela eta horregatik positibotzat jotzen dugu".

Himalaya


Pozik daude Besaidekoak Alex Zubia, bertako bazkidea Himalayara doala eta. "Pozikegoteko modukoa da. Dirulaguntzak lortzen lagundu diogu, Txus Martin Patagoniara joan zenean bezala". Datorren urtean beste bi mondragoetar joango dira Himalayara. "Bali-teke, gaur egun dauden erraztasunak direla eta, Himalaya moda bihurtzea".

Besaiderekin emandako lehen urratsen fruitua.

Besaide M.E.ko Zuzendaritza-Batzordea



- Lehendakaria Andoni Villar
- Lehendakariordea Bittor Inarra
- Idazkaria Jon Arregi
- Eski saila Karmelo Bergaretxe
- Aterpea Aitor Zubiaga
- Irteerak Etor Arregi
- Federatuak Aitor Okina
- Gazteak Jon Petreñas
- Espeleologia Juan Luis Esperasate
- Diruzaina Rufino Ugarte



UMEEN JANTZIAK

Otalora 29, Tfnoak: 77 05 61 ARRASATE

Eslu
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate



ARRASATEko UDALA

KLIMATIZAZIO-SISTEMAK: HOZKETA ETA AIRE GIROTUA

- **Edukia:** klimatizazio-zirkuitua, hozte planta, oinarrizko elektrizitatea, kutxa izoztaileak, prebentziorako mantenimendua, etab.
- **Hartzaileak:** L.H.I. edo I.E.E.ko prestakuntz mailarekin 18 urtetik gorako dauden langabetuak.
- **Zentrua:** M.C.M.eko pabilloi industrialia. Nafarroa Etorbidea.
- **Plazak:** 15.
- **Izen ematea eta matrikula:** 1991ko maiatzaren 28 arte.
- **Hasiera:** ekainaren 3an.
- **Bukaera:** azaroaren 29an.
- **Ordutegia:** 15 etatik 19 etara.
Ekainean eta uztailean ere eskolak emango dira goizeko 8etatik 10.45 etara.
- **Ikastaroaren iraupena:** 500 ordu

Informazioa eta Matrikula:
Arrasateko Udala (enplegu-dinamizatzailea).
Tfnoa: 79 09 00 edota Deba Garaiko Mankomunitatean.

Ondo aterako da.

LABURPENA:
Aurorak bere aita hiltzeko
asmoa azaldu dio Tomeyri.
Aitaren herentzia eskuratu
nahi du, biontzat.


3.
atala




Ezin dut gehiago itxaron, Tomey. Agurea bakarrik gelditu da etxean. Momenturik aproposena dugu orain.



Entzun. Ni logelan egongo naiz. Lana bukatzen duzunean egizu alde agudo. Poliziari deitu diot, eta datozenean lapurren historia kontatuko diet




Gauzak lasaitzen direnean, hain zoriontsuak izango gara... elkarrekin betirako!




Tori, Tomey. Eutsi, eta ez galdetu nondik atera dudan; ondo etorriko zaizu gauzak okertzen badira. Ordu laurden barru etorri. Erdi zabalik utziko dut sukaldeko leihoa.

ORDU LAURDEN GEROAGO...



Bueno, bueno. Hona hemen agurearen logela...






JARRAITUKO
DU.

**I
R
A
T
I**

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

**KAJOI
TABERNA**

Erdiko kale 22,
ARRASATE



GARAGARDOTEGIA

Otalora 23, Tfnoa: 77 09 23
ARRASATE

**EDERRA
taberna**

Iturriotz 12, Tfnoa: 79 96 25
ARRASATE

Alex Zubia, "Koxka"

Himalayan 8.046 metro igotzeko prest

Alex Zubia "Koxka", 29 urte, irakaslea, mendizalea. Urte askotan zehar inguruko mendietan eta haruntzago ere ibili izan arren, Himalayarako saltoa emango du udan arrasatear honek, neska mutil talde batekin. Iristea espero ez zuen ametsa da.

— Nortzuk osatzen duzue *Shisha Pangma 91* espedizioa eta nola sortu zen ideia?


— Julian Soraluze, Maria Jesus Larrañaga, Mikel Astigarraga eta Julian Serrano azpeitiarra, Felix Azkarate eskoitzarra eta neu, joan den urtean Andeetara joan ginen elkarrekin, eta han gustora ibili ginenez, azpeitiar batek oraingo bidaia prestatzeari ekin zion.

— Zein izan da orain arteko zuen esperientzia mendi mailan?

— Orain arte Pirinioetan eta Alpeetan ibili izan gara gehienbat. Atlasen ere izanak gara, eta azken bidaia luzea iazko Andeetakoa izan da. Himalaya aldean sekula ibili barik gaude denok. Gurekin doan neska, Maria Jesus izan daiteke zortzi milako bat egiten duen lehen emakume euskalduna, Amaia Arantzabalekin, Everestera doanarekin batera. Bi horien artean izango da, gaina harrapatzea lortzen bada.

— Salto handia izango da, beraz?

— Bai, baina Andeetan ibili ginenean ere 6.655eko mendi bat egin genuen, eta hortik gora nahi izanez gero Himalayara mugitu beharra dago. Lehen asmoa 7.600 inguruko mendiren bat egitea zen, baina lagun batekin esan zigun 8.000ko bat egitea erakargarriagoa zela, diru laguntzak lortzeko errazagoa,



eta animatu egin ginen.

— Zergatik aukeratu duzue mendi hori?

— Ez dakit zergatik aukeratu genuen, bati bururatu eta bera hartu genuen. Mendi polita da, erabat Tibetek kokatuta dagoen mendi bakarra. Altueran 8.046 metro, mendi horren berezitasun bezala luzea izatea aipa daiteke, aldapa gogorregeririk gabea, baina oso luzea. Elur asko egoten da pilatuta, eta eskiekin ibili beharra dago. Zailtasun nagusia zortzi milakoa izatea litzateke, altuerak berak zailtasunak ipintzen dituenetz; luzea izatean,

erresistentzia behar denez, oso ondo prestatuta joan behar dugu. Mendiak berak abalantxa arriskua du, baina teknikoki ez da eskalatzeko mendia.

— Zer epetan banatu duzue espedizioa?

— Abuztuan irtengo dugu, 13tik 16ra bitartean; Kathmandú-ra joango, eta irailera arte papeleoa egin. Iraila osoa dugu mendia egiteko, eta urriaren erdi aldera bueltan izango gara.

Tramiteak egiten eta halakoetarako bertako agentzia batekin ari gara harremantetan eta laguntzak eskatzeko

leku askotara jo dugu. Oso zaila da mendiko espedizio baterako dirulaguntza lortzea, jendeak ez du horrelako gauzetarako erraz soltutzen. Kamisetak atera ditugu, eta nahiko diru ateratzea espero dugu, bakoitzak ahalik eta gutxien jarri behar izateko. Ez dugu esponsorrik baina laguntzaileak bai, batzuk materiala merkeago emanaz, enpresa txiki batzuk laguntza txikiekin, eta oraindik ez dakigu Udalek zer egingo duten, hiru herritakoak garenez, beharbada hortik ere lor daiteke eta zerbait. Gainera, Diputazioa eta Mendiko Federazioa daude.

— Aurrekontua?

— Sei milioikoa da. Bi milioi eta ehun inguru materialetan (eskiak, erropa bereziak, dendak, materiala hara bidaltzea...), bederatzi ehun mila denon bidaia. Beste hiru miloi irteten du Nepaleko gastu guztiak, baimen, garraio, sukaldari, kanpamendua montatze, hirian lo egite eta antzekoak barne.

— Azpeititik Everestera, Aretxabaletatik Makalura, zuena, espedizio asko ari da prestatzen. Kritika batzuk entzuten dira mendizaleen artean, askotxo ez ote diren.

— Lehen mendi bakoitzarako baimen bakarra ematen zuten, eta orain berriaz, gehiago. Beharbada larregi da, denbora txarra tokatu eta denak leku berean harrapatuz gero, irteten ezinka gerta gaitzke. Zerbait gertatuz gero, laguntza emateko prest jende ugari dago eta denon artean zerbait egitea posible da. Lehen urrutiko gauza zela pentsatzen zen, baina gaur egun medio gehiago dago eta errazagoa da hurbiltzea.

— Aurrera begira?


— Gutxika-gutxika gero eta urrutirago joan gara.

“
Zaila da mendiko espedizio baterako dirulaguntza lortzea



Ruben Ramos eta Eneko Garai bikain

Duela zazpi egun bezala, gazte mailako txirringulak izan ziren, arrasatearren artean, emaitza onenak ekarri zituztenak. Gazteek Mutrikuko lasterketan hartu zuten parte, 90 kilometro burutu ondoren, Ruben Ramos eta Eneko Garaik bigarren eta hirugarren izatea lortu zutelarik. Gainontzeko txirringulak dagokienez, esan behar kadetetan Zigor Urain Gipuzkoako Txapelketako hamabigarren sailkatua izan zela, eta Zumarragako alebin lasterketan Oiherr Garro laugarren. Azkenik, kadete mailako emakumeek Astigarragan burututako Gipuzkoako Txapelketan hartu zuten parte, Arantxa Fernandez zortzigarrena izanik eta Amaia Garro hamargarren.



Denboraldiari buruz

Iazko denboraldian gertatu zen lez, amaitu berria daukagun honetan ere oso faktore garrantzitsu eta erabakitzeak suertatu zaigu hasiera erabat kaxkarra. Ez zirudien, abuztuan ikusitako joko, gogo eta morala kontuan baditugu, hasiera halakoxea izango zenik, baina baloia ofizialki martxan ipini zenean izugarritzko beharakada jasan genuen, eta, ondorioz, lehenengo bost partiduetan 2 puntu besterik lortzeko ez ginen gai izan, horrek dakartzan negatibo eta desmoralizazioarekin. Lehenengo buelta honetan, beraz, gauzak ez zitzaizkigun oso ongi joan, berau hiru negatiborekin amaitu genuelarik.

Bigarren bueltan, ona ez bada izan ere, baremoa zertxobait aldatu da, lehenengo bueltan baino 4 gol gehiago sartuz eta 9 gutxiago jaso. Oso zaila da esatea horretan entrenatzaile berriaren eragina eta eskua erabakiorrak izan diren edo ez, baina agian bigarren buelta honetan jokalariek askatasun haundiagoa izan du bere jokoan, batzuetan emaitzetan ez nabaritu arren.

Nire ustez ez da ekipa askorik egon (egon bada ere) gu baino gehiago denik demostratu duenik, baina ohizko leloarekin gabilta: golik sartzen ez bada... Ora in zain egon behar atseden honek beharrezko indarrak damazkigun datorren denboraldiari aurre egiteko. Hala bedi!

Inaxio Garro

Pilotako herrien arteko txapelketan gaizki

Arrasateko pilotariek, ez zioten hasiera onik eman Gipuzkoako herrien arteko txapelketari, Musakolan jokaturako hiru partiduetatik bi galdu bait zituzten. Haur mailan, arrasatearrek 18 eta 12ko emaitzaz galdu zuten, gazte mailako partiduen emaitza 22 eta 14koa izan zelarik Segurako alde.

Arrasatearren garaipen bakarra, nagusien mailako partiduan iritsi zen, 22 eta 10 irabazi zutelarik. Bueltoak partiduak larunbat gauean jokatu dira, Segurako frontoian.



Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

BRANKA
jatetxea

Eguneko menua eta karta

RAFA AXPE

Plater tiraketa kiroltzat

Rafael Axpe duela 37 urte Ara-
maixon jaio zen, eta orain Bedoñan
bizi bada ere, plater tiraketan erakutsi
duen trebetasunari esker munduko
bazter guztietan ibili da. "1981ean
lehiaketetan apur bat mugitzen hasi
nintzen eta hurrengo urtean serioago
hartu. Aldaketa handia egin nuen,
inguruko mendietan ehizan ibiltzetik
munduko toki askotako plater ti-
raketetan parte hartzera".


Axpek dioenez, ez omen da gauza
bera eskupeta mendian ehizean egi-
teko edo maila handiko plater tirake-
tan parte hartzeko erabiltzea. "Behin
lehiaketetan seriotasunez hasi eta
gero, entrenamendu asko egin behar
izaten da. Astean pare bat edo hiru
aldiz entrenatzen naiz, lehiaketarik
dagoen edo ez, horren arabera. Goi
mailari eusteko derrigorrezkoa da
asko entrenatzea. Nik Gasteizen edo
bestela Azkoitian egiten ditut entre-
namenduak".

Astean pare bat aldiz entrenatuz
gero, argi dago jaurlitzen diren kar-
tutxoak ere asko izango direla. Alde
horretatik, Rafa Axpek plater tirake-
ten mundua garestituz jotzen du.
"Kartutxoetan asko gastatzen da,
gainera entrenamenduek eta lehiake-

tek denbora luzea eramaten dutenez,
lanean ez gauden orduak ere asko
dira. Horretaz gain, eskaintzen zaiz-
kigun laguntzak txikiak direla aipatu
behar da".

Dena dela, plater tiraketaren
munduak poz handiak eman dizkio
Rafa Axperi. "Plater tiraketan jaso
dudan onena, ezagutu dudan jendea
izan da. Lehiaketetan sartu ez banin-
tz, ez nuke seguruen korear, alema-
niar, edo mexikarrekin harreman-
tarako aukerarik izango. Orain ere,
munduko txapelketara joan nahian
nabil, oso zaila bada ere, Australian
burutuiko den munduko txapelketera
hain zuzen".

Askorentzat plater tiraketak kirol-
larekin zerikusirik ez badaukate ere,
Rafa Axpek kirol gogortzat dauka,
teknika menperatu, oreka psikolo-
gikoa gorde, eta tiro egiteko orduan
patxada handia behar delako.



PODIUMA

◆ Arrasate-Oñati

Ramon Jausoro atxabaltarra, Almen
taldeko korrikalaria izan zen, joan zen
igandean Arrasate eta Oñatiren arteko
kros lasterketaren irabazlea, 34 minutu
eta 52 segundutako denborarekin. Por-
taloitik 199 korrikalari atera ziren.
Arrasate eta Oñati lotzen dituzten 11
kilometroak egin ondoren, besteak bes-
te, Enrike Kabiketa boskarren eta Jabier
Mentxaka seigarren sartu zirelarik. En-
rike Kabiketa bera izan zen beterano
mailako lasterketako irabazlea, eta Jose
Antonio Fuentes promesa mailakoare-
na. Beraz, maila ona arrasatearrek
erakutsi zutena.

◆ Adiskidetasunaren Zuzia


Datorren larunbatean aterata, Leintz
Bailarako Txirrindulari Taldeetako or-
dezkariek eta frantziar txirrindulariek
"Adiskidetasunaren Zuzia" delako
ikurra eramango dute Geou, Frantziako
hiriko elizara, bi etapatan. Hori dela eta,
Dorleta Txirrindulari Taldeak Leintz
bailarako txirrindulari guztiak gonbi-
datu nahi ditu martxa honetara, goizeko
8etan Dorletatik aterako den martxara
hain zuzen.

◆ Deba Arroa txapelketa

Deba Arroa txapelketaren barruan,
Aretxabaleta eta Arrasateko taldeen
arteko pilota-neurketa burutu zen joan
den asteburuan, lau partidu jokatu on-
doren neurketa berdindua atera zelarik.
Arrasatearrak, haur eta nagusien maila-
ko partiduetan atera ziren irabazle,
alebin eta gazteetan berriz, atxabalta-
rrak.

◆ Mendi Astea

Datorren igandean Besaidek antolatutako
mendi-asteari bukaera emango zaio,
mountain-bike irteera eginez.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal Inprimakialak
- Bulegoko materiala

Bilboko jaialdia euskararen alde Politikoak musikoak balira...

Sentitzen dut. Hauteskundeetarako kanpaina hasi berria den arren, seguruenik neu bezain aspertuak zaude te dagoeneko. Hala ere, espi-txa botatzea dagokit gaurkoan. Barka, beraz.

Bilbon gertatu da, guz-tion zorionerako, aspaldian euskararen alde gauzatu den ekintzarik esanguratsuen-a. Bilbon gertatu izana bera da lehen ipurtargia iluntasunean. Agertokian Jon Lopategi. Bapatean Bernardo Atxaga aurkezten du eta honek, luma bezain ederra hitza, «minutu bateko manifestua euskararen alde»



irakurtzen du. Ez sermoirik, ez programarik. "Euskara gure hizkuntza da" dio. Hori bai, mila hizkuntza ezberdinetan, mundu osoak uler dezan. Ondoren Ruper, Oskorri, Laboa eta Hertzainak. Bitarteetan, Kepa Junkera. Euskal musikoak denak. Ezberdinak denak, oso ezberdinak. Guztiak euskararen alde, musika estilo eta bizi-

modu ezberdinen gainerik. Eta bukaeran, denak batera "Guantanamo" kantatzen. Eta "Eguna Santi Mamiñe" (euskara salbo ikusi arte ez dut moztuko bizarra). Eta "Euskal Herrian euskaraz" (ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena?).

Beharbada txepelkeria sentimentala izango da, baina horrelakoei esker irauten

du bizirik eguneroko kontuek ahultzen duten nire euskararekiko itxaropenak. Eta oraingoan ez dira politiko serio, zentzudun, abertzale, euskaltzale, herrizale eta ez-dakit-zer-zaleak izan hori lortu dutenak, ez. Musikoak izan dira, musiko alproja, ar-lote, alper eta desitxuratuak. Zinez pentsatzen dut musikoek oraingoan erakutsi duten jarrera politikoengana hedatuko balitz, beste oilar baten kukurrukua entzungo lukeela euskarak aurrerantzean.

Nik behintzat soberan ditut kanpaina eta erreflexio-eguna. Nire botua, oraingoan, koadrilarentzat.

Mikel Irizar

Gure baloreak:

- **Elkartasuna eta berdintasuna:**

Hirugarren munduaren garapenari laguntzeko, aurrekontuen %0,7a eman.

Sexuen arteko bereizkerian oinarritutako gizarteari aurre egiteko emakumearen kontzejalia sortu.

- **Bakea:**

Kontzientzi eragozpen eskubideari babesa eman.

- **Parte hartzea:**

Herriari galdeketak egitea bultzatu: erreferenduma.

- **Ingurugiroa:**


Inguru ez-nuklearraren udal-adierazpena egin.

- **Norabidea eta koherentzia:**

OTANeko erreferendumari gure EZetza.

Golko Pertsiarreko gerraren aurrean Bakeari laguntza.

Abenduaren 14eko greban gure BAIetza langileon eskubideei.



Joseba Ugalde

EZKER BATUA-k
BESTE BALORE BAT DU

EMAN BOTOA EZKER BATUARI




ezker-batua

Batuta

Esteban Dolara

Esteban Dolara dultzaina ikasten hasi zenetik, dozena bat urte pasatu dira. Orditik, Arrasate eta inguruetako herrietan, ehundaka kalejira burutu ditu anaiarekin batera. Oso normala ez bada ere, Estebanek solfeoa eta dultzaina batera ikasi ditu, hau da bata ikasiz joan den heinean, bestea ikasteko balio izan dio. *"Tresna jotzen ikasi aurretik solfeoa jakitea hobea da, baina nik egin dudana bidea ere ez da txarra, eta uste dut edozein musika-tresna ikasteko balio dezakeela"*.

Dultzaina indar handiko musika-tresna izateak, Gipuzkoan oso errotuta dagoena gainera, eragin zuzena izan zuen Esteban Dolara eta bere anaiarengan aukeratzeko orduan. *"Dultzaineroak Nafarroako gauza direla oso uste zabaldua da, eta jende gehienak ez daki Gipuzkoa eta Bizkaian betidanik egon direla"*. Beste asko bezala, Esteban Dolara garai batean ikasitakoak erakusten ahalegintzen da, bere eta ikaslearen mesederako. *"Erakusterakoan ere, asko*



ikasten da. Dultzaina musika-tresna erraza dela esan daiteke, doinu sinpleak jotzekoa, zailena behar den indarrez jotzea da".

Dultzaina, batez ere, kalejiretan erabiltzen bada, azken aldian kontzertuetara moldatu nahian dabil Esteban Dolara, beste dultzainero askoren moduan. *"Dultzaina dagoen tokitik ateratzea oso zaila da. Urte luzeetan dultzaina bakarrik kalejira eta erromerietan erabili izanda, eta orain beste zentzu bat eman nahi zaio. Duela gutxi organo eta dultzainaz baliatuz kontzertua burutu zen. Sanjuane-tarako banda eta dultzainarekin kontzertua prestatzen ari gara... gauza batzuk egiten ari dira"*. Dultzaina ezezik, Esteban Dolarak tronpeta eta txistua ere badaki jotzen. Beraz, argi dago putz egin beharreko tresnak atsegin dituela.

Gipuzkoa eta Bizkaian betidanik izan dira dultzaineroak

Txio txioak

■ Kontzertua Parrokian

Hilaren 28an, Municheko kantari madrigalisten kontzertua burutuko da Arrasateko parrokian, arratsaldeko 8etatik aurrera.

■ Haurrentzako kontzertua

Larunbat arratsaldeko 5.30etan kontzertua izango da Arrasateko parrokian: Azpeitiko Julian Barrenetxea Txiki abesbatzarekin -30 haurrez osatua- eta San Viatorreko Abesbatzarekin. Azpeitiko abesbatzako zuzendariak Begoña Beobide eta Rebecka Larrañaga dira. Arrasatearren zuzendaria, berriz, Maite Amozarrain.

■ San Juan kantua

Ume au aundia izan dedin betik
Goikoak daroa eskutik
Ama sengeagandik zu jaio ziñan
Mirariz beterik
DONEIBAN

Badirudi Done Iban (*San Juan*) hori ez dela jatorriz kantukoa, ez eta bertako euskerakoa eta egileen asmoa doenean (*santutasunean*) jartea zela. Teoria honen defenditzaileek diote kantatu doenean egiten dela, baina, papeleratzeko orduan asmo garbizaleekin Iparraldeko Doneiban sartu zela.

Dena den, kantuko zati batean hau ageri da :

San Juanen doe miragarriak

Badirudi doetasun hori defenditzen dutenek arrazoa dutela eta gaur egungo testukoak ez duela zentzu handirik.

Hor dago zuzenketa, ikusi egin behar hurrengoko publikazioetan nola azaltzen zaigun.

MARTINEZ
aroztegia
Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak
Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

FANCY
GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1. Etxeba. Tfnoa: 77 14 24 ARRASATE

Euskararen normalizazioa komunitate linguistikoan

Aurrekoan esaten genuen euskarak euskaldun gaituak eta kontzientziadunak behar dituela. Gaurkoan jorrratuko dugun gaiaren funtsa beste honako hau da: konplexurik gabe euskaldun izateko aukera pertsonala egin nahi dutenak, elkartu egin behar dira dauden tokian daudela, euskararentzako espazio berriak zabalduz.

Oso ondo dakizue artikulotxo hauen irakurleok ez dela erreza euskararentzako espazio berriak sortzea, lekuri gehienetan euskara gaia aipatuaz bat jendea urduri jartzen hasten dela, edozein lantokitan, kuadrilatan edo

familiatan gaiari buruz serio hitz egiten jartzeak konpromezuak dakartzala. Eta horrexekin sortzen zaigu kezka: Nola egin euskara erakargarri euskaldunok -lehenik eta behin- onar dezagun tresna efektibo modura?

Pentsa dezagun momentu batez zeintzuk diren euskaldungoaren (euskaraz hitz egin ahal dutenen) azaleko eta sakoneko motibazioak euskararekiko, elkarren artean bat al datozen edo kontrajarrita dauden.

Arrasaten euskararen alde "jarrera" positiboa duten guztien "portaera" linguistikoa positibo bihurtuko balitz euskararentzako, zenbat aldatuko litzateke egoera? Ezin dugu ahaztu Arrasaten

erdiak baino gehiagok ez dakiela euskaraz, baina zenbateraino aldatuko litzateke dakigunok geure artean -hasteko- nonahi eta beti egingo bagenu?

Gure herriko ikastetxe, lantegi, elkarte eta negozio askotako arduradunak euskararen aldeko jarrera positiboa daukatena dira, eta posible da gero gaiari beldurra galtzea eta seriotasunez planteatzen hastea.

Eta hori da bidea: Euskaldun izan nahi dutenek, norabide berean, Komunitate kontzientzia izan eta gero eta espazio gehiago irabaztea euskararentzako, errealtatean gero eta posibleago bihurtzea nor bere inguruan euskaraz bizitzea.


Euskaldunok euskara erabili beharraz ohartu behar dugu, erabiltzeko gogoia izanez gero epeak eta eginbeharrekoak zehaztuko dira, baina lehenik eta behin gogoia eduki behar da: jarrera positiboa baino gehiago portaera positiboa.

Euskal Komunitatea osatzen eta trinkotzen goazen neurrian, gero eta indar handiagoa izango dugu euskararen beharra bueltatzen ez duten era guztietako proiektuetatik babesteko; proiektu hauek euskararen beharra ez sortzean egoera diglosikoa luzatzen eta legitimatzen ari dira eta. Baina hori ez da bakarka egiteko borroka.

Atalataikoan

BIDEO-EMANALDIA

GOONITARRAK



Tokia: Monterron kultur etxea.

Eguna: maiatzak 25.

Ordua: arratsaldeko 4etan.

Prezioa: 50 pezeta.

Sarrerak: Monterronen.

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea.

• Pako Zabala •

Lagun Aroko Aseguruak

Pako Zabalaren R-19 GTSak urte t'erdi dauka. Pakok izan duen hirugarren kotxea da eta orain arte oso pozik dabil berarekin. Auto berria erosi behar izatekotan, Renault-ekin segituko luke. Gazteagoa zenean gustatzen zitzaion abiadura, baina orain hobeto ikusi eta neurtzen du arriskua. Inoiz ez diote alkoholemiarik egin. Hartzen ditu neurriak, hala ere. "Joan den ostiralean afaria izan nuen Gasteizen etapijama eta nezeserra ere aldean eraman nituen, badaezpada». Ikasle itxura duten autostopista guztiak hartzen ditu. Musika lasaia du gogokoen berebilean doanean. "Musika gogorra, behintzat, inola ere ez"



**DENAK EZ GARA BERDINAK
EZ ZAITEZ DAGOENAREKIN KONFORMA**




**Gutxiengoak
beharrezkoak
dira**

**EMAN
BOTUA
LKI-EMK-ri**

Besaideko oroitarria prest

Aste honetan Besaide Mendizale Elkartek antolatatu duen mendia astearen barruan, asteartean, Albaro Arregiren azalpenaz jabetu ahal izan ginen. 'Albarok Besaideko historia azaldu zuen eta gaur egungo egoera zertan den. Horren ondoren ere, egitasmo batzuen berri eman zuen. Neure ustez egonaldi atsegina izan zen

Besaideko oroigarria 1953an egin zen. Mont Blancen istripuz hildako lau euskaldun sorterrira ekartzeko dirua batu beharra egon eta bilketa ugaria izan zenez, dirua sobran eta zerbait egi-tea pentsatu zen mendian hiltzen zirenen omenez.



1953tik 55 arte behar izan zen gaur dagoen oroigarria egin ahal izateko. Nahiz eta inauguratu zen urtean ikuspegi ederrak izan eta paraje garbian egon, urteokin honuntza Besaideko baszterrak narraztuta zeuden eta inguruko pinuak hazita.

Horrek horrela izan beharko ez lukeen eritzikoak bazirenez herri mailan, beste imajina bat emateko asmoz,

lan talde bat sortu zen. Ondorioz, lan talde honek beste oroigarri bat jarri du zegoenaren azpikaldean, iturrirako ura ere aurkitu du, ondoko terrenoetako jabeekin ere harremanetan jarrita daude, terreno mutur batzuk erosi eta pinuz garbiketako. Lehen zegoen oroigarriari berriz aietu bat eman diote azpiko losak aldatuz eta ertzetako harriak ere berrituz.

Agian, atentzio gehien emango diguna oroigarri berria da, Ogata japoniarrak landutako harri multzoa. Ogatak bere proiektua aurkeztu zuenean, hiru buruko harri multzoa aurkeztu zuen. baina Nafarroa falta zenez batzuen eritziz, ea laukoa egin zitekeen komentatu zioten. Ogatak erantzun, zazpi egin behar baziren ere, egingo zirela.

Hemendik eta irailaren 29 arte ea Gipuzkoako lurak erosten diren, belarra erein, botatzeko falta diren pinuak bota eta inportanteena izan daitekeena. Inguru hura bizirik eta garbirik izan nahi badugu, argi Elorrixotik eta hainbat lekutatik zabaldua dauden pitekin.

Hankamotz

EUSKAL FAMILIATAN

IKASI!!



Euskara ikasten ari zaretentzako egonaldiak euskal familiatan.

Informazioa eskuratu nahi baduzu, jo Udaletxeko Euskara Zerbitzura. Tfnoa: 79 09 00

Bi belaunaldi eta ilusio berbera:

"Arrasateren alde lanegitea"



■ **Jose Antonio Altuna.**
54 urteko arrasatearra.
Funtsean autodidakta, bai
enpresari izatean eta bai alkate
izan beharrean. Herri mailako
iniziatiba sozial askoren
bultzatzaile izan da eta berauen
iraupenaren arduradun.

■ **Pedro M. Ruiz de Azua.**
33 urteko arrasatearra.
Fagorren lanegiten du injiniari.
Udal-Juntako lehendakari
izana da EAJ-tik
eta Arrasateko Udaleko
zinegotzi Eusko Alkartasunaren
ordezkaritzan.

■ Jose Antonio, zer dela-ta horren luzaro politika aktibotik baztertua? Eta zergatik itzuli zara?

Neure buruari egin nion promes bategatik utzi nuen politika aktiboa "Bergarako Alkateak" taldean nire eginkizuna amaitu zenean. Kontuan eduki behar da orduan berderatzi urte eskaini nizkiola Udalari eta denbora luzeagoa behar nuen neure familiaz eta enpresaz arduratzeko.

Eta orain berriro itzuli naiz, Arrasateren alde lanean jarraitu nahi dudalako. Orain bertan aski denbora daukat eta proiektuak ilusionaturik nauka lehen aldi hartan bezalaxe..

Zergatik leku hori zerrendan?

Eusko Alkartasunak nahi nuen postua hartzeko aukera eskaini zidan, baina neuk ere, beste hainbatek bezala, uste dut gazteriari dagokiola bere sasoi eta prestakuntzarekin aitzindaritzaz hartzea. Esperientzia, ilusioa eta lana izango dira nire ekarkina, heldutasunaren emaitza den aholkularitza ere ahaztu gabe. Beste arrazoi sakonetako bat hauxe da, talde bateko kide izan nahi dudala eta liderraren rola utzi.

Irteten bazara, zinegotzi gisa jardungo duzu?

Bai horixe! Gogotik gainera! Ni ez nago hor zerrenda apaintzeko. Agintaldia beteko dut, baldin eta konzientzi edo ideologi arazo apartekoren batzuk lagatzera behar-tzen ez banaute behintzat. Ez da ahaztu behar nik independente gisa partehartzen dudala.

Zer proiektu dauzkazu zinegotzi irteten zarenerako?

Elementu bateratzaile izatea, gehiago hitzeggin elkartzen gaituenaz urruntzen gaituenaz baino. Eta ahal badut, buru izatea honelatsuko izena lukeen batzorde batean: "hiri-ekologia", bertatik irtenbideak emateko gure ingurune-ko eraso ekologiko ugari (ibaia, zaratak, zikinkeria, pintaketak ...), eta bizi-kalitatea hobetu Arrasaten, euro-par mailako herri bati dagokion bezala.

■ Pedro Mari, zer ondorio ekarriko ditu Altuna Udalean sartzeak?

Ba Udalean izatea Arrasate ondo ordezkatzeko duen pertsona bat. Iniziatiba, lanerako gaitasun eta irudimen handiko gizona eta, gainera, pentsakeraz eta izakeraz arrasatear gehienak bezalakoa dena, eta zalantza gabe, arrasatearren kezka asko bere gain hartu eta konponbidea emango diena.

Irtengo balitz, nork hartuko luke zuzendaritza?

Eusko Alkartasunaren denok gara lankide eta normalean ez da sortzen aitzindaritzaz arazorik. Dena dela, azken batean eran-tzunkizun hori neuri legokidake eta nik, neure aldetik, kontu emango nioke Udal-Batza edo Juntari.

Zer berezirik eskaintzen diozue Arrasateri?

Hasi oinezkoentzat ibilbideak sortzetik, oztopogune eta bidegurutzetako arriskutsurik gabeko ibilbideak Aretxabaleta eta Roneorantz alegia, eta parroki-erakuntza zaharberrietatik pasaz, arazorik garrantzitsu-eraino, hala nola, Goi Mailako Injenieri-tza Eskokaren sorkuntza bultzatu, serbitzu egitamu estratejoko bat burutu, arreta berezia eskainiz etxebizitzaren auziari.

Nola osatua nahi zenukete Udal-gorporazioa?

Gure Udalak abertzalea izan behar du eta bakearen aldekoa. Horiek ditugu geure ardatzak. Beroien barruan ez dugu baztertzen beste ezein aukera, baldin adostasunik badugu geure programetan eta denok behartuko gaituen jardupide-egitamu bat erabakitzen badugu, zintzo lanegiteko konpromezua hartuz, Arrasateren hobe kuntza ezarriko helburutzat. Horretarako prest gaude alkatetzaren erantzunkizuna onartzeko, hala egokituko balitz.



eusko alkartasuna

Aste gazte

Gaztaroa altxor bitxi hori, bazoaz ez itzultzeko, negar egin nahi dudanean, ezin eta batzuetan, nahi gabe egin.

Besaide gazte-ekintzak

• Ekainak 1 eta 2: Eskalada Ikastaroa. 14-18 urte bitarteko gazteei zuzendua. Atxarteko haitzetan. Izene-mateak: Besaide M. Elkartearen egoitzan, hilak 27, 28 eta 29, 7.30etatik 8.30etara. Prezioa: 200 pta.

Bekak

• Portugalen ikasketak sakontzeko bekak. Eskatzaileak: goi mailako graduatuak. Dirulaguntza: lizentziatuentzat 58.200 eskudo hilero eta ikertzaileentzat 74.800. Iraupena: ikasturte bat. Epea:



ekainak 1.

• Frantzia lanbide praktikak frantseseko ikastaroekin batera egiteko bekak. Eskatzaileak: LH-2ko ikasleentzat, honako espezialitate hauetan: Ileapaingintza, sukaldaritza eta harreman publikoak. Baldintza: 90-91 ikasturtean bekadun izatea. Dirulaguntza: joan-etorriko bidaia, ostatua eta ikastaroaren gastu guztiak. epea: ekainak 6 (EHAA 91-05-08).

• 1991/92 ikasturteko ekintzak finantziatzeko dirulaguntzak. Eskatzaileak: ikastetxe publikoetako ikasleek gurasoen elkarteak, federakundeak eta konfederakundeak. epea: ekainak 10 (EHAA 91-05-03).

• 1992/93 ikasturtean Britainia Haundian ikasketak sakontzeko bekak. "La Caixa" eta "British Council" erakundeen deialdia. Eskatzaileak: ingelesa menperatzen duten goi mailako tituludunak edo karrerako azkenengo ikasturteko ikasleak. Dirulaguntza: joan-etorriko bidaia, ikaske-

tetarako matrikula eta hileko 620 libera esterlina. Epea: 91-06-28.

Lehiaketak

• Balmasedako argazki-lehiaketa. Zuribeltzean edo koloretan. Gai eta neurri libreak. sari bakarra: 125.000 pta. Lanak aurkezteko epea: Ekainak 1.

• "Juan Bautista Comes" VII. Koru-konposaketa lehiaketa. Sari bakarra: 250.000 pta. Lanak aurkezteko epea: ekainak 8.

• "Cafe Iruña" VI. kartel-lehiaketa (Tolosako 23. nazioarteko abesbatz lehiaketa iragartzeko). Teknika libre. Sari bakarra: 100.000 pta. Lanak aurkezteko epea: ekainak 14.

• "Limon de Santome-ra" poesia lehiaketa. Gaia, errima eta konposaketa libreak. Lanek 50 eta 100 lerro bitartekoak izan behar dute. Sari bakarra: 100.000 pta. eta urrezko limoia. Lanak aurkezteko epea: ekainak 14.

• "Becquer 91" nazioarteko poesia lehiaketa. Bi modalitate: soneto eta poesia. Sariak: 300.000 eta 150.000 pta. Lanak aurkezteko epea: ekainak 22.

Gazte txartela

• Eusko Jaurilaritzak Gazte Txartelaren aurtengo kanpaina laster batean jarriko du martxan. Eredu berriak bi urteko iraupena izango du eta doan lortu ahal izango da, 1 eta 25 urte bitarteko gazte guztiak eskuratzeko aukera izango dutelarik. Emango dizuegu gazte Txartela lortzeko epearen berri.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

"PAL"
burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

T **F** **K** **L** **N**

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Ofiseta

Ferrerias 23,
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENZA

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABAETA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

ETXEBIZITZAK

- Bi oheko logela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Pisua salgai Iturriotz kalean. 89m2, hiru logela, egongela, sukalde, komuna eta trastelekua, dena kanporuntz. Dei egin 8etatik 10etara 79 76 56 tfnora.
- Etxebizitza salgai Obenerrekan. Guztiz berriua. Egongela, bainugela, sukalde eta logelabat jantziak. Beste bi logela. Trastelekua. 78m². Bakarkako berogailua. Ganbara. Deitu inongorik gabe 79 98 83 tfnora. Gaueko 8etatik 10k bitartean.
- Uribe auzoan etxebizitza salgai. 107 m², garajea, trastero eta ganbara. Dei egin gauean 79 34 23 tfnora. edo denda orduetan 79 98 94 tfnora.
- Erguinen etxebizitza salgai. (Garajea aukeran). 3 logela, egongela, sukalde, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua. Bista ederrak. Gas naturala. Tfnoa: 79 93 42.
- Naturazaleok: hondartza ondoan dagoen apartamendu-estudioa alokatzen dut. Paraje naturala. Guztiz ekipatua. Vera-n (Almeria) Harremanetarako jo 94- 467 47 07 tfnora.
- Baserría alokatu edo erosiko genuke Deba Garalan. Deitu 79 75 96 tfnora. Jon.
- Peñiscolan sei pertsonarentzako bungalow-a alokatzen da uda osoan. Dei egin 27 01 37 tfnora. Itziar.

LANA

- Jaun-andereok:
 - Egunean hiru ordu libre eta telefonoa badituzu.
 - Beste edozein iharduerarekin bateragarria.
 - Irabaziak: 100.000tik 300.000 pta. hilean, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan.

-Aurrez ordua hartuta bakarrik. Deitu 77 14 81 telefonoan 4etatik 7etara.

- Euskarazko klase partikularrak emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 79 49 18.
- Estetika ikasketak bukatu ditut eta lanerako prest nago. Tfnoa: 79 19 20
- Gizon gaztea lan egiteko prest. Egun erdi, goizez. Dei egin 79 75 43 tfnora. Jesus.
- Cobol-eko klase partikularrak hartuko nituzke. Dei egin 15.30etatik 17.30etara. Tfnoa: 77 08 15. Mikel.
- Taller batean lan egingo nuke mekanika aprendiz bezala. Tfnoa: 79 96 10.
- Ileaipindegri batean egingo nuke lan. Ikasketak bukatu ditut. Tfnoa: 79 56 36.
- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 79 13 26 tfnora. Maite.
- Neska euskalduna behar da Gasteizen. Tfnoa: 79 25 98.
- Euskara eta Ingeleseko klase partikularrak ematen ditut. Tfnoa: 79 21 56.

SALEROSKETAK

- Egoera onean dagoen Renault 6 GTL bat erosiko nuke. Lanorduetan 77 09 40.
- Karro-denda salgai. Alpen-Kreuzer GT modelokoa (2 logela, 6 pertsonarentzat) gainerako guztiekin. Tfnoa: 79 66 31.
- Amstrad Cpc 6128 kolorekoa salgai. Inprimagailua, arkatx optikoa, ramdisk, jokoak, testu prozesatzailea, musika, marrazkiak. Aldizkariak eta liburuak ordenadorearekin ematen ditut. 60.000 pta. Dei egin bazkal orduetan 79 62 94 tfnora.
- Stratocaster-en kopia saltzen da prezio onean. Interesatuek dei egin 79 36 83 tfnora. 13.30etatik 15.00ak bitartean edo 22.00etatik aurrera, astean zehar. Patxi.

• Teoría elemental de grupos" E. Bujalance-na eta "Anillos y cuerpos conmutativos" Jose M. Ganboarena salgai, (zientzia zehatzak), berri-berriak. Dei egin 79 92 29 tfnora. 20.30etatik aurrera.

- Karrerako bizikleta salgai. Arina, polita, gutxi erabilia. Prezio interesgarria. Tfnoa: 76 32 69
- Algebra liburuak salgai. (UNEDen Zientzia zehatzak karrerako egokitze mailan erabiltzeri direnak). Estrenatu barik eta prezio onean. Dei egin iluntzeko 8.30etatik aurrera 79 92 29 tfnora.
- Bederatzi hilaibeteko txakurra salgai. Informazio gehiagorako dei egin 79 82 91 (Tomas) edo 79 49 49 (Iban) telefonoetara.
- Egoera onean dagoen bateria merkea erosiko nuke. Dei egin 8etatik aurrera 79 52 31 tfnora Iban.
- Aulki anatomikoak saltzen dira prezio onean. Informazio gehiago 79 06 66 tfnoan. Goizeko 10etatik 13.30ark arte.
- Kirol apur bat nahi eta biziestatik bat ez daukat, zuk agian saltzeko daukazu. Neuk erosiko dizut. Tfnoa: 79 50 53. Josepa.

DENETARIK

- Irlandatik zuzenean: Kaixo! Hemen gaude Guinnessaren menpean askatu ezinak, ea zuek kalimotxo kupela bat bidaltzen diguzuen. Laster bueltan izango gara txikiteo gudaria egiteko. OK. (Aitziber eta Miren). Gora Euskadi!
- Kalealdetik Ferrixalekurako bidean estutxe iarrosa bat galdu nuen, barruan ajenda eta josteko gauzak nituelarik. Norbaitek aurkitu badu dei egin dezala 77 06 51 tfnora.
- Hitzetik hortzera ikusteko merke edo emateko daukazuun telebista hori behar dugu. X. Letona, A. Errasti, D. Goikolea eta J. Sarasua. Tfnoa: 79 10 93



ARRASATEN HILDAKOAK

Garai Arregi Eulalia,
maiatzaren 15ean. 75 urte.

Etxebarría Zuloaga Dionisia,
maiatzaren 16an. 90 urte.

Mateo Gomez Paula,
maiatzaren 16an. 71 urte.

Belastegi Larrañaga Facundo,
maiatzaren 20an. 79 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Jabier Mentxaka

Korrikalaria



- **Maratoia ala krosa?** Krosa.
- **Zapatak ala zapatilak?** Beti zapatilak. Bai korrika egiteko, bai kalean ibiltzeko.
- **Korrikarako, mendia ala errepidea?** Mendia hobe.
- **Korrika goizean ala arratsaldean?** Denbora onarekin berdin dit.
- **Oinez ala bizikletan?** Bizikletan ibiltzea izugarri gustatzen zait, baina normalean oinez ibiltzen naiz.
- **Okela ala barazkiak?** Denetik, baina pasatu gabe, neurrian.
- **Telebista ala zinema?** Nire gustokoa zinea da, desberdina da.
- **Hitz egin ala entzun?** Batzuetan entzutea eta beste batzuetan hitz egitea. Txandaka.
- **Oporretan, mendia ala hondartza?** Mendia nahiago, baina hondartzara joaten gara.
- **Korrikarako fraka motzak ala luzeak?** Fraka motzak erosoagoak dira.
- **Musika klasikoa ala rocka?** Biak, baina lasai entzuteko, musika klasikoa.
- **Korrika egiteko, euri zaparrada ala bero handia?** Euri zaparrada, gero dutxa ederra hartu eta kitto.
- **Entrenatu, bakarrik ala lagunekin?** Lagunekin hobeto, gutxiago nekatzen da.
- **Korrikan, etiopiarrek ala keniarrek?** Momentu honetan keniarrek, dudarik gabe.
- **Irakurtzeko, kirol albisteak ala nobelak?** Bietatik, baina astelehenetan normalean kirolak.
- **Espainiako Itzulia ala Donostiako Maratoia?** Hiru itzuli handiak gustatzen zaizkit eta Donostiako maratoia ere bai, noski.
- **Loreak ureztatu ala alfonbra astindu?** Alfonbrak astintzea tokatzen zait batzuetan.
- **San Juanak ala Santamasak?** Biak onak eta ez nituzke ezerгатik aldatuko.

Igarkizunak

Animaliak:

- 1- Lur azpitik sortua bigun eta malgua; beldurtzen dute oiloek ez, ordea, lehoiek; ia barruan du barea delako.
 - 2- Herenegun arraultzetxoan atzo, berriz, zorrotxoan, bihar ibiliko naiz zeruan txoritxo baten moduan.
 - 3- Kanpandorrikerik gabea komentu bat ongi itxia, barruan mojatxo-taldea prestatzen ari ezia.
 - 4- Tirri-tirri lau iturri zuri mendi baten azpian lau zuhaitzen artean.
 - 5- Saltakari doaz lau bide beretik lasterka, korrikari egun eta gau elkar harrapatu ezinka.
 - 6- Gure astotxo bizkorrak "a" esaten du bakarrik, lau aldiz hori sartuta egiten du bere hizketa.
 - 7- Lehenago guk eramaten genuen gizona gainean, orain berak garamatza autoaren barnean.
- 1: Zizareta. 2: Tximeleta. 3: Erategia. 4: Beharren errapea. 5: Zaldiren hankak. 6: Aharrantza. 7: Zaldiak.

Felipe
Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
 Tfnoa 79 29 91
ARRASATE



La Mercedeko ikasleak kalistroetan. 1957.

A

zaroak 13
zituen, 1957an
Ospital
Zaharrear
ikasten
zebiltzan
neskatila
hauek argazki-

makinari begira jarri zirenean.
Gehienek zazpi-zortzi urte inguru
izango zituzten.

Goiko iladatik hasita, ezkerretik
eskuinera, abizenez, Artzamendi,
Arregi, Gorostiza, Guridi,
Goikolea, Otxandiano, Etxebarria,
Rubio, Urrutia, Llodio, Jimenez,
Jausoro, Leibar, Larrasoaña,
Mondragon, Garai, Arrieta,
Arizaga eta Arregi.

Bigarren lerroan, ezkerretik,
Riviere, Arregi, Barrena, Senar,
Murgia, Heriz, Iñarra,

Kortabarria, Arrieta, Sainz,
Gorosabel, Velez, Larrañaga,
Ugalde, Ortiz de Guzman, Inda eta
Martinez de Marigorta.

Belauniko edo jarrita, Zubia, Ruiz
de Alegria, Elorza, Eguren,
Etxandia, Uribe, Tricio, Kruzeta,
Bedia, Nafarrate, Eguren, Azkoaga,
Bengoa eta Agirreurreta



HI-FI CARS SYSTEMS

**AUTORAKO
ELEKTRIZITATEA**

- Autorako soinua
- Alarmak
- Ekipamendua

Legarre Pabilioia, etxebehea,
Tfnoa: 77 02 36 ARRASATE



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

ALMEN IKASTETXEA

Hona hemen hiru esara zahar, ezte asmatu
berain esanahia:

a	e	i	o	u
↓	↓	↓	↓	↓
⊠	⊠	::	⊠	≡

≡⊠⊠ ⊠skH⊠ tx⊠p⊠⊠. K⊠skE⊠⊠


⊠d::s⊠::d⊠ s⊠n⊠k⊠::n E⊠nd⊠⊠K ⊠b⊠z

gE⊠::z⊠k⊠E⊠ ⊠⊠::n⊠ g⊠r⊠n:: g⊠≡⊠k⊠

Ea amaten dituzun jergifiko
hauek:




Zerbaiten huts
egir du?



Abakoa da Anaren
senargala?

Hau, ipuin zoragarri
bati dagokion marraz
Kia da.
Ba al dakizu zein den?
Beheto arattek jarraituz
marzo dezakezu:



100 baino handiagoak: berde.
60 eta 80 tartekoak: horiz.
30 eta 50 tartekoak: laranja.
20 baino txikiagoak: urdinez.
20 eta 30 tartekoak: beltzez.

Almen ikastola

4. Maila

ZOO GALAKTIKOA

ILATINA Bontocaripeatus
ZEUSKE RAMateinkratera
ENGAE TELERA Salkrateres
AJATORRIA Bultanus
planeta, Caripeata galaxia
IZAERA. Burua dinosaurus
modukoa. Bi hego ditu.
Zortzi hanka. Buztanaren
puntan arantzezia lola bat.
Arantzezia bizirik da.
Caripeata tresarik jaten
ditu.

EA AVIARTZEN ZAREY
MATXINKRATERA HARRASTEN

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak

Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

Umea eta sugea

Badakit ipuin baten hasiera, amaiera ez ordea.

Aldietan, zuen berramonaren berramonak sehaskan zeudela gutxi gorabehera, edo lehenago, bazen sugetzar bat herri batean. Egun batean horzkada egin zion ume bati eta bapatean hil egin zen. Herritarrek aurkitu zuten umearen gorputza eta suge batek hilda zela ikustean, berau aurkitzea erabaki zuten. Bila hasi eta laster aurkitu egin zuten.

Akatu! Akatu suge hiltzaile hori! -hasi zen oihuka jendea-.

Gogoratu gure semeaz! -zioten gurasoek-.

Gogoratu gure lagunaz! -zioten umearen lagunek-

Eta hiltzeaz zeukatela, gure herri hartako zaharrenak (zaharrena bait zen jakintsuena herri hartan, ez dakigu besteetan hala ote den) honela esan zien bere herritarrei:

Geldi! Geldi, arren! Sugeari ere utz diezaiogun hitz egiten! (*)

Nik badakit ipuin baten hasiera, amaiera ez ordea.

(*) Egia esanez "audi alteram partem" esan nahi izan zuen agureak baina ez zuen latinezko hitzik aipatu, honelaxe ulertua izango zelakoan: "hauxe da kulpantea".

Argi geratu da oso azkarra zela zahar hura, zenbatetan ez bait da dakigun guztia esan behar.

Julu



**ARANBURU
COTEMAR**

Garraio agentzia



Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE


ALTUNA

Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errabala
Tfnoa: 79 14 23

26 IGANDEA

- 21.30 **Zenbat buru, hainbat aburu**, mahaingurua. Gaia: Udal Hauteskundeak. (errepikaldia)
 22.30 **Udal Hauteskundeak**. Programa berezia: datuak, elkarrizketak, emaitzak...



27 ASTELEHENA


- 18.30 **Teletestua**. Era guztietako iragarki eta abisuak.
 19.30 **Bapirulauke**, umeen saioa, aste honetan S. Viatorreko ikastolan grabatua.
 20.00 **Udal hauteskundeak**. Igandeko emanaldi ibereziaren errepikaldia.

28 ASTEARTEA

- 11.00 **Teletestua**.
 12.00 **Bapirulauke** (bezperakoa)
 12.30 **Udal hauteskundeak** (igandekoa)

29 ASTEAZKENA

- 19.00 **Teletestua**, era guztietako iragarki eta abisuak
 20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albisteak.
 20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzentzen duen mahaingurua. Gaia: Udal hauteskundeak Arrasaten emaitzak ezagutu eta gero. Gonbidatuak: alkategai guztiak.



21.10 **Berriak** (errepikaldia)

30 OSTEGUNA

- 11.00 **Teletestua** (bezperakoa)
 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
 12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
 13.10 **Berriak** (errepikaldia)

31 OSTIRALA

- 19.00 **Teletestua**
 20.00 **Berriak**, ATBren informatiboa, Begoña Garaik aurkeztua.
 20.20 **Erretratoa**, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Nikolas Gardoki, aramaiorra. Eguzki taldeko soinujolea.



20.50 **Musikantoi**, Patxi, Pepe, Asier eta Mikelek egiten duten saioa. **Berriak** (errepikaldia)

1 LARUNBATA

- 11.00 **Teletestua**
 12.00 **Berriak**(bezperakoa)
 12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
 12.50 **Musikantoi**(bezperakoa).
 13.30 **Berriak** (bezperakoa)

Onduline TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
 Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdia
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak

FELIPE MADINA ZURAK


Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78



Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
 ARRASATE

Udal Hauteskundeak 91



Koldo Rodriguez



Begoña Garai

Koldo Rodriguez eta Begoña Garaiaren eskutik, ATBk emanaldi berezia prestatu du maiatzaren 26ko iganderako.

Girotzeko, asteazkeneko mahaingurua errepikatuko da, alkategai guztiekin. Eta hamar t'erdietan... Mondragoeri buruzko datuak hasiko dira agertzen: orokorrak, auzoz-auzokoak, zinegotzi berriak...

Bozketa egunari buruzko erreportaia pantailaratuko da saio berezi honetan. Horrez gain, Koldok eta Begoñiak zerrendaburuak elkarrizketatuko dituzte. Emaitzak, eritziak, koalizioak... jakin behar den guztia.

Gau horretan munduko beste ezein telebistak, ezta CNNk ere, eman ezingo dutena ATBk emango du: udal hauteskundeetako emaitzak Arrasaten, xehetasun eta protagonista guztiekin, behar den moduan.

Rambo, Rocky edo Falcon Crest dioenak, munduko telebista guztietan ikusi ahal diren filme edo serieak dio. Nik behintzat, zentzu horretan ulertu dut Andoni Urzelaireren galdera. Eta bat nator haren erantzunarekin. Guztiz zilegia dela uste bait dut ATBk era horretako programak ematea.

Gaur egun, gainera, hainbat filme eta dokumental dago euskaratuta. Eusko Jauriaritzaren enkarguz soilik hogeitamar titulu inguru egongo dira euskaratuta. El-huyar elkarteak, bestalde, BBC telebista britainiarren dokumental-serie pare bat gutxienez baditu euskaratuta. Horiez gain, Euskal Herrian egin diren eukal filmeek pilo errespetagarria osatzen dute.

Seguru nago ATB aipatu filme eta dokumentalak -eta nola ez, marrazki biziak- ematen hasiko balitz, bere eskaintza askoz ere erakarriago bihurtuko litzatekeela. Baina hemen ere koska dago. ATBk ordaindu egin beharko litzuke egile eskubideak ala Warner eta gainerako banatzaileek auzitegitara eraman dezatela arriskatu? Horixe da erabaki eta gainditu beharreko gakoa.

Joxe Aranzabal

Telebelarri

◆ Gure amandrea, hiltzen zirenen etxeetara joaten zen errezetara. Euker sentimentu bat errezetan!!

Jaime Zubialde "Torres"ek
Erretratoa saioan

◆ Amandrea hillarrian zegoela, burua alztatu eta han geundenoi esan zigun: Zer bainan hainbeste jende? Horrenbeste grabe nago?"

Jaime Zubialde "Torres"ek
Erretratoa saioan

◆ Don Luis, abarie, bakitzu fuertie zana eta egundoko kokotetzarra eukena"

Jaime Zubialde "Torres"ek
Erretrato saioan



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Irudimenaz sortutako lanen baten ondorio den ordainen bat jasotzea suerta liteke. Bidezkoa izango ez den eskaintzaren bat egitea ere suerta liteke. Asmo onik antzematen ez diozun jendea ebitea ezazu, arazoak baino ez bait dizkizute sortuko.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra


Hilaren 22an sartuko da Marte zure zainuan eta aspeldidanik motelduta zenezukan energia horiek berpiztu egingo dira. Iritsi da, bai, Leo, aspaldian ezinaren poderioz alde batera lagata zenezukan nahi horiek betetzen hasteko momentua.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Venus maitasunaren etxean sartzean zureganatzea ezinezkotzat jozen zenuen pertsona hori erakartzea lortuko duzu eta ez da, ez, edonolako izango bion artean sortuko den harremana. Bizipoza izango duzu, Sagitario.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Baliteke lanean nagusiak dituzunak oso zintzo ez jokatzeko zurekin. Esanak betetzera mugatzea komeniko litzazuke, horrela egin ezean hauen injustizia areagotu egin bait liteke eta kalteu bakarra zeu izan.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Itxura tristea antzematen diozu zeure buruari eta asmatu ezinda zabilta aurkeztu nahi zenukeen look berriarekin. Bame garbiketaren bat egingo bazenu kanpokaide alaiagoa izatea eta ispluari horrenbeste bisita ez egitea lortuko zenuke. Alimo.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Saturno eta Venusek zure ekonomiaren etxean osatzen duten oposizioak ez die batera onik egiten zure finantzei. Ez zenuke inolako inbertsiorik egin beharko datorren astean ezta inongo jokutan parterik hartu, ere zorrak egitea suerta liteke eta.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Ezkon bizimodurik ez badaramazu oraingoa da asmo horiek betetzeko une aproposa, Eguzkia zure esparuan sartzen bait da hilaren 21ean eta asmoak gauzatzeko gai izango zara. Ordura arte ez zaitetz ezertan hasi, baliteke bertan behera gelditzea eta.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Venus zure etxean sartzeak harreman onak ekarriko dizkizu lan arloan, batez ere nagusiarekin. Bihotz bakartientzako ere primerako egoera da hau, ze beren biziko amodioa aurki bait lezakete lantokian.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Osasunak ez du bere onean jarraitzen Acuario. Etxetik kanpoko otorduak ebitatu beharko zenituzke intoxikazioaren bat izateko arriskua bait dago. Eguzkia zure etxean egoteak zorte ona ekarriko dizu finantza arloan.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Umeak bazinate ari zarete laguna eta biok zeinek zein engainatuta. Ez zaudete ez zintzo jokatzeko ari elkarrekin eta tirabira ugari sortuko zaizkizue. Saia zaitetz bestearen zureganako erruak barkatzen.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Bizimodu profesionalean aurrerabidea eskain diezazukeen norbait ezagutuko duzu datozen egunetan. Pertsona horrekin harreman sendoa lortzeko komenigarri izango zaizu.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Venus etxean edukitzeak behar duzuna emango dizu, Piscis, dirua zein maitasuna. Baliteke zure portaeragatik hirurak batera merezi izatea. Lan arloan baliteke norbaitek adarra jo nahi izatea, beraz datozen egunetan ezazu sinetsi belarria datorrizun gutzia.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIONDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta 17, etxabea. Tfnoa: 79 20 18 ARRASATE



ARRASATEko UDALA

INSTALAZIO ETA MUNTAIA ELEKTRO-MEKANIKOEI BURUZKO IKASTAROA

- **Edukia:** Muntai Prozesuak.
Oinarrizko elektrizitatea.
Soldadura. Marrazki teknikoa,
zenbaki-kontrolaren hastapena, etab.
- **Destinatariak:** L.H.I. edo I.E.E.ko prestakuntz mailarekin dauden
18 urtetik gorako langabetuak.
- **Zentrua:** M.C.M.ren Pabiloi Industriala. Nafarroa Etorbidea.
- **Plazak:** 15.
- **Izen ematea
eta matrikula:** 91-V-28 arte.
- **Hasiera:** ekainaren 3an.
- **Bukaera:** abenduaren 20an.
- **Ikastaroaren
iraupena:** 620 ordu.

Informazioa eta matrikula:

Arrasateko Udala. Enplegu-Dinamizatzailea. Tfnoa: 79 09 00 edota
Deba Garaiko Udal Enplegu-Dinamizatzailearen bidez.

ARRASATE
ARRASATE

HERRI BATASUNA

